

# KANBOKO HERRI BILTZARRAREN

## 2022ko OTSAILAREN 28ko

### BILKURA AKTA LABURRA

Hor ziren: Christian Devèze auzapeza, Eliane Aizpuru, Jean-Noël Magis, Yolande Huguenard, Didier Irastorza, Marie Aristizabal (20:00etatik goiti), Robert Poulou, Vincent Goytino, ordeak, Véronique Cadepond-Larronde, Corinne Othatceguy (20:00ak arte), Jean-Paul Eyherachar, Isabelle Ayerbe, Jean-François Lacosta, Maud Gastigard, Roger Barbier, Bernadette Remeau, Sébastien Carre, Argitxu Hiriart-Urruty, Nathalie Aiçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Lilian Hirigoyen, Alain Boscq, herri kontseilariak.

Ezin etorriak: Marie Aristizabal 20:00ak arte), Christiane Hargain-Despéries, ordeak, Peio Etcheleku, Corinne Othatceguy (20:00etatik goiti), Nicole Amestoy, Jean-Jacques Lassus, Carmen Gonzalez, Philippe Bacardatz, herri biltzarkideak.

Ahalordeak: Marie Aristizabal-ek Yolande Huguenard-i (20:00ak arte), Christiane Hargain-Despéries-k Jean-Noël Magis-i, Peio Etcheleku-k Jean-François Lacosta-ri, Corinne Othatceguy-k Eliane Aizpuru-ri (20:00tik goiti), Nicole Amestoy-ek Véronique Cadepond-Larronde-ri, Jean-Jacques Lassus-ek Vincent Goytino-ri, Carmen Gonzalez-ek Maud Gastigard-i, Philippe Bacardatz-ek Amaia Beyrie-ri.

Saioa hasi aitzin, Auzapezak solasgaietako 1. gaiari buruzko eztabaidan parte hartuko duten hiru pertsona aurkeztu ditu:

- Carrillo "adjudant-chef"-a: Pirinio Atlantikoetako bideo-babesaren erreferentea,
- Zanardo tenientea: Kanbo, Uztaritze eta Ezpeletako Jendarmeria brigadetako komandantea,
- Mondieig jauna: aholkularia

## **Saioko idazkariaren izendapena.**

**Biltzarkideek aho batez, Jean-Paul Eyherachar hautatu dute saioko idazkari izateko.**

Auzapez jaunak proposatu du Eliane Aizpuru lehen auzapez ordeak izan dadila saioko presidentea 2021eko administrazio kontuen azterketarako.

Aho batez onartua.

## **– Iragan biltzarraren aktaren onarpena.**

Auzapezak adierazi du gehiengoko taldeko kide batek egin oharra (ortografia akatsa frantsesez) kontuan hartua izan dela, eta 2021eko abenduaren 16ko saioko akta bozkara eman du.

Aho batez onartua.

## **01 – Bideo-babesa: behin betiko aitzin-proiektua**

Herri Biltzarrak, 2021eko martxoaren 29ko erabakiz, onartu zuen hiriko bideo-babes sistema baten ezartzea, eremu publikoaren segurtasuna eta lasaitasuna bermatzeko helburuarekin. Xedapen teknikoen eta kameren kokapena hautatzeko laguntza teknikoa eskatu du.

2021eko martxoaren 29ko saio hartan aipatu bezala, azaldu du Uztaritzeko Jendarmeria taldearekin harremanetan, lurraldeko delinkuentziaren azterketa egin dela, zeinak azken urteotan oieskeria eta gaiztakeria ekintza maila altua erakusten duen.

- Osotasun fisikoaren kontrako erasoak: 9 eta 13 kasu seinatuak urte batez
- Ebasketak: 25 eta 32 kasu seinatuak urte batez
- Drogei buruzko lege urraketak: 15 eta 21 kasu seinatuak urte batez
- Ondasunen kontrako erasoak eta kalteak: 11 eta 28 kasu seinatuak urte batez, emendatze azkar batekin 2020 eta 2021 artean.

Biztanleria garatzen ari denez eta intseguritate sentipenaz at, kalte horiek ordezte edo konpontze kargak suposatzen dituzte, zerbitzu teknikoen eskuhartzearekin, gehienetan urgentzian ekipamenduak segurtatu eta zerbitzu publikoaren jarraikortasuna baldintza normaletan bermatu behar baitira.

Ondorioz, Herriak intseguritatearen eta delinkuentziaren kontrako politika aktibo batean sartu nahi du. Politika horrek orekatua izateko xedea du, prebentzioa, hezkuntza, bitartekaritza eta disuasioa eginez.

Politika horren lau elementu nagusi aztertzen ari dira, hots:

- 1) Udaltzain (herriko polizia) taldearen azkartzea, arduradun bat kontratatuz,
- 2) Jendarmeriako seguritate erreferenteak herria laguntzea bere estrategian,
- 3) Tokiko Seguritate eta Delinkuentziaren Prebentzio Batzorde baten sortzea (TSDPB/CLSPD),
- 4) Bideo-babes sistema baten ezartzea.

Bideo-babesari dagokionez, horretaz hartuko baita erabakia, jendarmeriarekiko lankidetzak gomendatzen digu 18 kamera ezartzea 12 lekutik hurbil (Herriko Etxea, Edmond Rostand hiribidea, Espainiako etorbidea, Bernadette Jougleux aretoa, Mandixola biribilgunea, Txokolategia, Hiletzeko biribilgunea, Kirol zelaia, Arnagako aparkalekua, Behereko Plazako parkea, Kirol Guneko sartzea ezker paretaren aldetik, Sorhainde plaza, ikus atxikirik den dokumentua).

Bestalde, eta funtsezko askatasun publiko eta pribatuak babesten dituzten legezko eta arauzko betebeharren errespetatzeaz haratago, Herriak erabaki du bideo-babes sistemaren ustiapena Gutun Etiko baten esparruan kokatzea. Herri Biltzarrari eskatuko zaio Gutun Etiko horren onartzea.

Gutun Etikoak bideo-babes sistemaren funtzionamendu baldintzak ematen ditu, baita irudien tratamendua eta irudi horietarako sarbide eskubidea ere.

Azkenik, oroitarazten du, bideo-babes sistema instalatzeko prefekturaren baimena behar dela, eta horretarako txosten bat aurkeztu behar dela Departamenduko Bideo-babes Sistemen Batzordearen aitzinean, honek balioetsi dezan. Esparru horretan, eta Frantziako Barne Seguritatearen Kodeko L252-3 artikulua araberak, baimen horrek zehazten ditu irudien transmititzeko, grabaketetarako sarbide eta babesteko modalitateak, baita irudiak kontserbatze garaia, hots transmititu edo eskura izan diren unetik

hilabete batera, baina zigor prozedura batentzako kontserbatu behar izanez gero luzeago kontserba daitezke.

18 kameren inbertsioaren aitzin aurrekontua 190 000 €koa da, zergaz kanpo, eta Frantziako estatuak, Delinkuentziaren Prebentziorako Ministerio arteko Funtsaren dirulaguntza onartu digu, nahiz eta oraindik ez jakin zenbatekoa izanen den.

Auzapezak Herri Biltzarrari honakoak onartzea proposatu dio:

1º) Herriko eremu publikoaren segurtasuna eta lasaitasun publikoa bermatzeko helburua duen bideo-babes sistema baten ezartzea;

2º) Zehaztu den bideo-babes sistemaren instalazioa eta aurreikusten den finantzazio plana onartzea, eta Auzapezari baimena ematea instalazio horri loturiko izapideen izenpetzeko eta bereziki horretarako deialdi publikoen abiatzeko;

3º) Bideo-babesaren gutun etikoa.

Hirigoyen, anderearen aburuz, hemezortzi kamera horien instalatzea norbanakoen askatasunen kontrako eraso da, eta dena kontuan hartuz hartzeko erabakia da. Kanboko delinkuentziari buruzko zehaztasunak eskatu ditu, bereziki ondasunen kontrako erasoei buruzkoak. Gazte batzuek kanutoak erretzeak justifika dezakea 190 000 €ko inbertsioa? Herriak hobe luke haiekin ikustea ez ote duten denbora hori hobeki baliatzen ahal, zeren ongi baitakigu kanutoa eta gero gauza larriagoak gertatzen ahal direla. Honela gazteak eta beren ingurukoak zainduko genituzke. « Ricard » baso batzuk edan dituen pertsona batek gazte horien jarrera ber bera du. Baina, ba al dute zaintza berezirik?

Auzapezak onartu du harritia dela entzun berri duenarekin eta uste du oposizioko taldeak ez duela ideiarik ere Kanboko lurraldean gertatzen denaz. Askatasunen kontrako erasoari dagokionez, oroitarazi du herriak ahal bezainbat berme hartu dituela, lege esparrutik haratago, askatasun horien bermatzeko. Honela, grabatu diren irudien ustiapena egin ahal izateko, prokuradorearen eskaera beharko da, polizia judizialeko ofizial baten bidez. Gertakariei dagokienez, Zanardo tenienteari eman dio hitza.

Zanardo tenienteak zehaztu du ondasunen kontrako erasotzat hartzen direla objektuak kaltetzen direnean (kartoiak itzultzea, indarkeriarik gabeko lapurretak, pintadak, material desberdinen haustea, bereziki Sorhainde plazan, kirol parkean, Zabalki gelan eta harmailtan). Kategoria bakoitzari dagokion zerbakiak eman ditu ondotik. Kalte guzti horiek konpondu behar dira, eta horrek kostua eragiten du Kanboko biztanleentzat.

Indarkeriari dagokionez, pertsona bat bultzatzea izan daiteke, baina kasu horietan salaketa guti bada, edo sexu eraso, eta zorigaitzez Kanbon ere gertatzen diren gauzak dira. Inportantea da hori jakitea.

Drogei loturiko lege urraketek dagokienez, egia da kanuto txikiak badirela, baina «Ricard»-a ez bezala, kanutoa legez kanpoko da.

Gertakari guzti horiek bildurik, Kanbon ehun esku-hartze gehiago izan da 2018 eta 2021 artean. Emendatze azkar hori bere ardurapeko beste herrietan ez da ikusi. Hiru urteko garai horretan, kalte materialak bikoiztu dira.

Auzapezak zehaztu du Zanardo tenientearen eremuko beste herrien artean Kanbo dela oieskeria eta gaiztakeria kasu gehien dituen.

Hirigoyen andereak Zanardo tenientea eskertu du eman dituen xehetasunengatik, eta galdetu du zenbat kasu epaituak izan diren eta zer zigor ukan duten arduradunek. Ekintza horiek egin dituztenen adina ere jakin nahi izan du.

Zanardo tenienteak ihardetsi dio epaituak izan diren pertsonak %13 direla, ondasunen kontrako erasoen kasuan, baina onartu du ez duela adinari buruzko elementurik. Denetarik badela gehitu du, "zaharrak" dei ditzakegunak eta hamabost urteko gazteak. Dituen elementuen arabera, zaila da kalte edo eraso horiek, egin dituzten jendeak atzematea, eta bideo-babesa tresna gehigarria izan daiteke egileak identifikatzen laguntzeko.

Bukatzeko, Hirigoyen andereak, Frantziako Grenoble hiriko dokumentu bat irakurri du. Jendarmeriako Ofizialen Eskolak egin inkesta eskaera bat da, non agerian ematen den kamera bidez grabatu diren 1939 kasutik 22 inkesta bakarrik argitu direla, hots %1,1. Ikerketa horren argira, zalantza egin daiteke kamera horiek kasuak argitzeko duten eraginkortasunaz, egileak ez direnean in flagranti harrapatzen.

Zanardo tenienteak erantzun dio Grenoble eta Kanbo ezin direla konparatu. Ez dute biztanleria bera, eta delinkuentzia gertakariak ere ez dira berdinak.

Aiçaguerre andereak zehaztu du ikerketa horrek Grenoble hiria eta harren inguruak ere hartzen dituela. Ondorioa da bideo-zaintzak ez duela deusetarako balio.

Zanardo tenienteak berretsi du ezin daitekeela Kanborekin alderatu. Kanbon, kalteak eragiten diren lekuak ongi identifikatuak dira. Gainera, Grenobleko ikerketa horrek ez du erraten zenbat ekintza saihestu diren kamerei esker.

Hirigoyen andereak zehaztu du, justuki, kamerek eragiten dutena dela delinkuentzia lekuz aldatzea.

Zanardo tenienteak zehaztu du ez duela politikarik egiten. Bere helburua da Kanbon gertatzen diren kalte eta suntsitze arazoak konpontzea.

Auzapezak uste du, posible izan daitekeela Kanborekin konpara daitezkeen beste erreferentzia batzuen atzematea. Ohartu da gero eta herri gehiagok bideo-babes sistema ezartzen dutela, eta ez dela moda kontu bat. Gaur egun zaila da egileak identifikatzea. Kanboko delinkuentzia zenbakiak adierazgarriak dira. Ez da "Ricard" edo kanuto baten kontua. Hori gure herrian gertatzen denaren zati bat besterik ez da.

Zanardo tenientea eta bere lan taldea eskertu ditu datuen bilketa lanarentzat.

Alaman jaunak gai horri buruzko gogoetaren laburpena egin nahi izan du. Diagnostikoa hor da, nehorik ez dezake uka. Badu gizartearen bilakaerarekin zer ikustekorik, eta ez da Kanbon bakarrik gertatzen. Beraz, arazo horri erantzun beharko zaio. Bideo-babesa aterabide teknikoa izan daiteke, eragin puntual eta oso mugatua izanen duena. Kamerak ezartzearekin ez dugu delinkuentziaren arazo orokorra konponduko. Halako sistema ezarri dituzten herrien balorazioak ez dira oso baikorrak, inbertsioaren kostua dela-eta. Bideo-babesaren aitzin-proiektua gaur eztabaidatzen dugu, baina gehiengoko taldeak jadanik hartu du sistema horren inbertsioa egiteko erabakia.

Hautu politikoa da, ez da ordena indarren ikuspegi operazional batetik egina. Zer zentzu ematen diogu erabaki horri? Zer gizarterantz abian gara? Horiek dira, hautetsi gisa, bere buruari egiten dizkion galderak. Eta galdetzen dio ere ea bihar, kamera horiek egiazko aterabidea ekarriko ote dioten gizartearen ezontsaren emendatzeari. Zer arazo konponduko dugu, eta zer gizarte nahi dugu biharko?

Auzapezak ohartarazi du Alaman jauna termino bertsuetan mintzatu dela orain hilabete zenbait. Bideo-babesa da gehiengoko taldeak nahi duen aterabide teknikoa. Kanbo inguruko hainbat herri bideo-babes sistema ezarri badute, interes zerbait izan behar du. Kanbok ez ditu gizartearen arazo guztiak konponduko, ez eta gurasoak ordeztuko beren hezkuntza eginkizunean. Zehaztu du

auziperatuak izan diren pertsonen artean ez dagoela kanboarrik. Herriak nahi du bideo-babes sistema disuasio tresna gehigarria izan dadila. Aldi berean, herriak hezitzaile bat kontratatuko du skateparkearentzat.

Beyrie andereak ongi ulertu du Kanbo delinkuentziaren podiumean dagoela. Galdetu du zergatik delinkuentzia beste herrietan baino azkarrago emendatzen den Kanbon?

Auzapezak ihardetsi dio Kanboko herri erdigunea erakargarria dela eta gazte asko bertan biltzen dela. Herri txikiagoetan, menturaz ez da halako elkartzetik eta hobe haientzat, baina Kanbo hiri handien artean hiri txikia da. Bien arteko izari batean kokatzen da gauza askotan, ez bakarrik oieskeria eta delinkuentzia gaietaz. Kamerak ardatz nagusietan ezarriko dira, eta ondorioz herriko sartze guztietan, eta horrela gure herrira heldu den jende kopuruaren berri izanen dugu.

Alaman jaunak galdetu du ea Uztaritze eta Hazparne podiumerako konparaketan kontuan hartu diren.

Auzapezak erantzun dio Hazparne ez dela Zanardo tenientearen eremuan sartzean.

Zanardo tenienteak berretsi du, bere ardurapean dituen hamalau herrietan Kanbo dela delinkuentzia gehien duena. Eremuan konpara daitekeen herri bakarra Uztaritze da, bere izariarengatik. Ekintza kaltegarrien emendatze azkarra mugatu daiteke, besteak beste bideo-babesarekin.

Beyrie andereak gehitu du Kanbon etxebizitza programa anitz badela, eta herriak handitzen segituko duela, eta horrekin batera arazoak ere bai. Espero du beste palanka batzuk erabil daitezkeela delinkuentzia murrizteko, hala nola gizarte lotura, elkarbizitza.

Zanardo tenienteak ihardetsi dio bideo-babesa dela fite ezar daitekeen palanka bat, eta delinkuentziaren emendatzea frenatzen laguntzen ahal duela.

Hirigoyen andereak puntu baikor bat aipatu nahi zian du: Tokiko Seguritate eta Delinkuentziaren Prebentzio Batzordea. Hori da denek behar dugun gizatasunezko tresna, alegia, kamerekin ez da aski izanen. Kamerak + jendarmerian, gizatasuna ikus daiteke, baina urrunago joan behar dugu. Uste du hori dela hain zuzen Seguritate Batzordearen eginkizuna. Gure buruei gezurretan aritzea litzateke pentsatzea errepresioak soilik konponduko dituela arazoak. Frantziako delinkuentziaren prebentziorako 2020-2024 estrategiak norabide interesgarriak ematen ditu: lehen mailako prebentzioa lantzea, hots 12 urtetik beherakoena, delinkuentzia lantzea eskolatik irakaslearekin, ikuskariekin, hautetsiekin, herriko gizarte hezkuntzako arlo osoarekin lankidetzan, apendizgo ekintzak garatzea, Internet, sare sozialak ongi erabiltzeko ekintzak, komunikabide eta informaziorako hezkuntza ekintzak. Pentsatzen du Batzordearen helburua dela ekintza horretan gizatasuna ematea, Kanbon delinkuentzia gutitzeko edo emendatzea mugatzeko. Kamerez gain, giza harremanak landu behar dira, hurbiltasunezko polizia batekin, begi oneko polizia batekin, polizia hezitzaile batekin.

Auzapezak ohartarazi du hori dela hain zuzen Tokiko Seguritate eta Delinkuentziaren Prebentzio Batzordearekin egin nahi duena. Gehitu du herriak Udaltzaingoaren arduradun bat kontratatuko duela. Horrek egunerokoa hurbiltasunezko harremanak, prebentzioa eta behar izanez gero errepresioa landuko ditu.

Hiriart-Urruty andereak galdetu du ea hezitzailearen postu fitxa egina ote den.

Auzapezak ihardetsi dio skateparkeko hezitzailea izanen dela. Hastapen batean, hezkuntza eginbeharraz gain, leku horretan gertatzen den guztia zainduko du. Gehitu du herriak hezitzaile elebiduna ere kontratatuko duela.

Corinne Othatceguy anderea gelatik atera da.

Marie Aristizabal anderea gelan sartu da.

Hiriart-Urruty andereak galdetu du ea hezitzailea denbora oso batekin kontratatuko den.

Auzapezak baietz.

Hiriart-Urruty andereak goresmenak eman dizkio, zeren hori zen oposizioko taldeak behin eta berriz egin zuen eskaera. Skateparkea tresna zoragarria da gazteentzat, baina lagunduak izan behar dute.

Auzapezak zehaztu du kontratatzea bere taldearen programan idatzia zela.

Hiriart-Urruty andereak galdetu du nola osatua izanen den Tokiko Seguritate Batzordea.

Auzapezak erantzun dio Tokiko Seguritate Batzordea honela osatuko dela: Pirinio Atlantikoetako Prefekturako ordezkari bat, frantses errepublikako Prokuradorearen ordezkari bat, departamenduko gizarte zerbitzuetako, jendarmeriako ordezkariak, ikastetxeetako ordezkariak (kolegio guztiak), eskoletako zuzendariak, kolegioetako zuzendariak, elkarteetako, alokatzaileen, ikasle gurasoen eta errentatzaileen ordezkariak. Auzapezaren ordenantza batek zehaztuko du batzordearen osaketa.

Hiriart-Urruty andereak gutun etikoa irakurri duela erran du eta, grabaketak hamabost egunez atxikiko direla ulertu du. Galdetu du nork begiratzen ahalko dituen grabaketa horiek.

Auzapezak ihardetsi du grabaketak soilik polizia judizialeko ofizial baten eskariz eta horretarako baimenduak diren beste pertsona batzuek soilik begiratzen ahalko dituztela.

Carrillo adjudante-nagusiak zehaztu du sistema ezartzea baimentzen duen prefekturako ordenantzan zehaztua izanen dela nork begiratzen ahal dituen grabaketak. Grabaketak begiratu ahal izateko, lehenik salaketa bat behar da eta prokuradorearen agindu bat grabaketa zati zehatz baten eskuratzeko. Egunkari informatiko bati esker jakin ahalko da nork zer ikusi duen.

Hiriart-Urruty andereak galdetu du nola funtzionatuko duen sistemak.

Carrillo adjudante-nagusiak ihardetsi dio kamerek eguneko 24 orenez filmatuko dutela, eta hamabost egunero, hamabostaldiko lehen eguna ezabatuko dela.

Hiriart-Urruty andereak galdetu du non begiratuko diren grabaketak.

Auzapezak oraingoz ez dela finkatu non begiratuko diren grabaketak. Altxortegi Publikoko eraikineko lehen solairuan izan liteke, non oraingoz altxorzainaren funtzio-etxebizitza dagoen, jakinez etxebizitza horren alokairu kontratuak bertan behera egon beharko lukeela.

Hirigoyen anderearen kalkuluen arabera, 18 kamerek hamabost egunez 7000 oreneko grabaketak ekoitziko dituzte. Irudien iragazteko metodoaz zalantzak dituela adierazi du.

Mondieig jaunak erantzun dio irudien ikusteko softwaretan lerro kronologiko bat badela non gailur batzuk agertzen diren zerbait gertatzen denean. Horrela iragazten dira mugimenduak dituzten irudiak.

Hiriart-Urruty andereak pentsatzen du beraz profesionalek dituztela irudiak ikusiko.

Carrillo adjudante-nagusiak prefekturako ordenantzan izendatuak diren pertsonak soilik begiratzen ahalko dituztela, eta formakuntza bat eginen dutela manipulazio horren egiteko.

Alaman jaunak harridura adierazi du kamera batzuk biribildune batzuetan daudelako non eraikin publikorik ez dagoen, baina trafikoa besterik ez. Galdetu du zer interes duen pasatu besterik egiten ez duten pertsonen filmatzeak.

Carrillo adjudante-nagusiak erantzun dio helburua dela Kanbora sartzen diren pertsonak filmatzea. Horregatik ibilgailuan matrikula plakak irakurtzeko sistema izanen da biribilduneetan eta skateparkean adibidez.

Irastorza jaunaren iritziz kameren interesa da salaketa bat dagoenean filmatu dena ikusi ahal izatea. Eztabaida honetan erran diren hitz batzuk biziki azkarrak iruditzen zaizkio: «bizi eta askatasun pribatuari eraso». Berak badaki Baiona, Angelu eta Biarritzen kamerak badirela, baina horrek ez dio trabarik egiten hara joateko. Ez duzunean zu buruari deus aurpegiratzeko, lasaiki mugi zaitezke.

Boscq jaunak galdetu du ea bilan bat eginen den urte bat edo biren buruan, zenbaki egiaztatuekin.

Auzapezak erantzun dio bilan bat eginen dela non zenbat pertsona ezagutu ahal izan diren jakinen den, gaur egun ezinezkoa dena.

Beyrie andereak galdegin du ea kamerak lekuz aldatuko diren oieskeria kasuak lekuz aldatuko direnean, kenduko direnez sekula gaiztakeria kasuak gutxitzen badira.

Auzapezak ihardetsi dio 190 000 €ko inbertsio baten ondotik kamerek funtzionatzen segituko dutela. Halere espero du delinkuentzia kasuak gutxituko direla. Zehaztu du arrats horretan balioztatuko den sistemari aldaketak egiteko Prefekturaren baimen berria beharko dela.

Boscq jaunaren galderari erantzunez, Zanardo tenienteak erran du bideo-babesaren eragina bi gauzetan ageriko dela: lehenik ondasunen kontrako kalteen gutxitzea, hala bada, eta bigarrenik sistemari esker argituko diren aferen ehunekoa. Horiek dira ematen ahalko dituen zenbaki bakarrak.

Boscq jaunak galdetu dio ea estatistika horiek publiko eginen direnez.

Zanardo tenienteak ezetz.

Boscq jaunak, orduan ez dela bilanik izanen.

Hiriart-Urruty andereak zehaztu du diru publikoarekin ordainduko dela.

Auzapezak Carrillo adjudante-nagusia, Zanardo tenientea eta Mondieig jauna eskertu ditu eta gelatik atera dira. Haien parte hartzea ezinbestekoa zen argipen edo azalpen batzuen ekartzeko. Gai minbera denez, komeni zen arrapostu ahalik eta zehatzenak ematea.

Auzapezak bozkara eman du.

### **Gehiengoz onartua.**

Kontra bozkatu dute: Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Lilian Hirigoyen, Alain Boscq.

## **02 – 2021-2022 ikasturterako goi mailako ikasketen egiteko herriko beka esleipena**

Aristizabal andereak oroitarazi du «Eskola - Haurtzaro - Gazteria» batzordea 2022ko otsailaren 15ean bildu zela goi mailako ikasketetarako 15 herriko beka eskaera aztertzeko 2021-2022 ikasturterako.

Herriko Biltzarrari eskatu dio herriko 20 beka horien esleipena bozkatzea, orotara 9 672 € heldu direlarik 2021-2022 ikasturterako. Horretarako kredituak 2022ko hasierako aurrekontuan sartuko direla adierazi du.

Auzapezak bozkara eman du.

**Aho batez onartua.**

## **03 – Turismo Bulegoari dirulaguntza aurretiaz ematea**

Irastorza jaunak oroitarazi du 2020ko abenduaren 5eko erabakiz, Herri Biltzarrak baimena eman ziola auzapezari 2021-2023 aldirako helburu hitzarmen baten izenpetzeko Turismo Bulegoarekin, zeinean urtero 200 000 €ko funtzionamendu kreditu bat onartzen zaion Turismo Bulegoari.

Lehen artikulua xedapenak segituz (hitzarmen horretako 3. ataleko zerbitzu publikoko misioen diruztatzeari buruzkoa), Turismo Bulegoak 2022ko otsailaren 1eko gutun bidez diru laguntzaren %50a aurretiaz isurtzea eskatu du, hots 100 000 €.

Herri Biltzarrari proposatu dio zenbateko hori aurretiaz ematea onartzea.

Auzapezak bozkara eman du.

**Aho batez onartua**

## **04 – Oihanburu bideko lur sail baten eskuratzea: hipotekaren altxatzea**

Magis jaunak biltzarkideei oroitarazi die Herriak katastroko AI 190 eta 192, 24 m<sup>2</sup>ko lur saila eskuratu nahi duela Oihanburua bidearen zabaltzeko.

2021eko uztailaren 5eko Herri Biltzarraren erabakiz, eskuratze hori onetsi zen Dufourd jaunari lur saila erosiz, eta Herria 4 350 €ko obren egitera engaiatzen zen trukean, hots Ehaitiarena bideko sarreraren harriztatzea, seila berriarentzako zutoin berrien ezartzea, dagoen hesia botatzea eta berdina berriz egitea.

Txostenaren ikerketak argira eman du terrenoak hipoteka bat baduela, eta orain horren altxatzea eskatu behar da. Hipotekaren altxatzeak 800 € kostatzen du.

Proposatu du herriak har ditzala gastu guzti horiek.

Herri Biltzarrari eskatu dio hipotekaren altxatzeko gastuen hartzea onartzea eta Auzapezari baimena ematea horretarako beharrezkoak diren izapide guztien egiteko.



Lacosta jaunak adierazi du ez duela gai honen eta 7.aren bozkan parte hartuko, eta hala egingen duela ere Peio Etchelekuren ahalordearekin.

Beyrie andereak ez du ulertzen zergatik hipotekaren altxatze gastuak Herriak hartzen dituen bere gain. Galdetu du ere zergatik orain egiten den bozka hau, alegia, terrenoaren erosteko bozkaren ondotik.

Zerbitzu Teknikoetako Zuzendariak ihardetsi dio jabeak ahortzi zuela zehaztea bankuan hipoteka bazuela lur sail horrentzat.

Beyrie andereak zehaztu du zenbateko txikia dela herriko aurrekontuen ondoan, baina haur elbarrituen laguntzeko elkarte bati ezeztatu zaion dirulaguntza baten ondoan, ordea, diru zama handia da. Uler dezake herria harrapatua izan dela baina ez zaio normala iruditzen norbanako baten gastuak hartzea.

Magis jaunak zehaztu du lur sail horrek kokapen erresebatua duela. Ondorioz, herriak du erabaki bidea zabaltzea eta Dufourd jaunari eskatu dio lur saila eman diezaiola. Horregatik, inportantea da herriak har dezala hipotekaren altxatze gastua.

Boscq jaunarentzat, trabagarriena da erosi eta gero jakitea hipoteka hori badela. Galdetu du ea herria behartua den gastu horien hartzera.

Auzapezak ihardetsi dio, teorian jabeak hipoteka altxatu behar izan zuela saldu aitzin.

Magis jaunak zehaztu du herriak duela ekintza hori abiatu kokapen erresebatua dela-eta.

Auzapezak bozkara eman du.

### **Gehiengoz onartua.**

Kontra bozkatu dute: Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Lilian Hirigoyen, Alain Boscq.

Ez dute bozkan parte hartu: Jean-François Lacosta eta Peio Etcheleku.

## **05 – Burdin bideko lur sail baten eskuratzea: hipotekaren altxatzea**

Magis jaunak oroitarazi du herriak 17m<sup>2</sup>ko BM22 katastroko zenbakiko lur saila eskuratu nahi duela Burdin bidea zabaltzeko.

Herri Biltzarraren 2019ko urriaren 28ko erabaki batez, lur saila Billiaux andereari erostea onartu zen euro sinbolikoaren truke.

Txostenaren ikerketak argira eman du lur sailak hipoteka bat baduela, eta orain horren altxatzea eskatu behar da. Kostua 900 eurokoa da.

Proposatu du herriak har ditzala gastu guzti horiek.

Herri Biltzarrari eskatu dio hipotekaren altxatzeko gastuen hartzea onartzea eta Auzapezari baimena ematea horretarako beharrezkoak diren izapide guztien egiteko.

Auzapezak bozkara eman du.

### **Gehiengoz onartua.**

Kontra bozkatu dute: Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Lilian Hirigoyen, Alain Boscq.

Hiriart-Urruty andereak zehaztu du, aitzineko erabakiaren kasuan ez bezala, lur sail hau euro sinbolikoaren truke eskuratu dela, eta aitzinekoa 4 350 €ren truke.

Magis jaunak zehaztu du 4 350 € horiek lur saila konpontzeko eta hesia egiteko gastuei dagokiela.

## **06– 7 Haritzen bideko lur baten eskuratzearen erregularizazioa eta eremu publikora pasatzea**

Magis jaunak oroitarazi du erregularizazio hori 7 Haritzen bidea antolatzeko egiten dela. Herriak Berasategui jaunari eskatu zion 14 m<sup>2</sup> lur zatia utz ziezaion autobus geltoki baten egiteko.

Baina, lur sailaren eskuratzeko notario agiriak ez dira eginak izan. Ondorioz, egoera erregularizatu behar da.

Herri Biltzarrari eskatu dio errepide bazterreko lan horien egiteko balio izan duen lur sailaren eskuratzeari onartzea eta Auzapezari baimena ematea horretarako beharrezkoak diren izapide guztien egiteko.

Auzapezak bozkara eman du.

**Aho batez onartua.**

## **07 – Oihanburu bideko lur sail baten eskuratzeari eta eremu publikora pasatzea**

Magis jaunak biltzarkideei aurkeztu die Baionako Diozesa Elkartearen ados dela katastroko AH n°0070 lur saila uzteko, zeina Oihanburua bidearen luzeran kokatua den.

Terrenoak 388 m<sup>2</sup> inguru egiten du eta THPan 83 zenbakiko kokapen erreserbatuan sartzen da, Oihanburuko bidea zabaldu ahal izateko.

Eremu publikora pasatzea proposatu du, 500 €ko sari merke baten truke.

Hiriart-Urruty andereak gogoan duenez, diru zenbateko bera jadanik eman zitzaizkien dirulaguntza gisa.

Auzapezak zehaztu du, Bacardatz jaunak ohartarazi zuela herriak 500 €ko dohaina egiten ziola Baionako diozesari, lur sail horren uztearen truke. Bere ustez, ordea, higiezin uztea izan zen eta ez dohaina. Horregatik eskuratzeari bozkara eman du gaurko saioan, jakinez dirulaguntzarik ez dela eman iaz.

Beyrie andereak galdetu du ea Oihanburuko bidearekin zer ikustekorik duten eskuratzeari edo aldaketa guztiak In'Sitom proiektu berriaren sarbideari lotuak diren.

Auzapezak baietz, eta zehaztu du horregatik Lacosta jaunak ez duela bozkan parte hartzen, eta Etcheleku jaunak berdin

Auzapezak bozkara eman du.

**Gehiengoz onartua.**

Kontra bozkatu dute: Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Lilian Hirigoyen, Alain Boscq.

Ez dute bozkan parte hartu: Jean-François Lacosta eta Peio Etcheleku.

## **08 – Legezkotasun kontrola jasan behar duten agirien tele-transmisio hitzarmenari emendakina**

Auzapezak oroitarazi du Kanbo agirien desmaterializazioaren aldeko urraspidean engaiatu dela, frantses administrazioaren menpeko lurralde osoan ematen ari den administrazioaren modernizazioaren ardatz nagusia izanik.

Pirinio Atlantikoetako Prefetarekin hitzarmen bat izenpetu genuen 2014ko urtarrilaren 8an, legezkotasun kontrola jasan behar zuten agiri edo akta batzuen desmaterializatzeko @ctes (Aide au Contrôle et à la Transmission Electronique Sécurisée) aplikazioaren bidez. Gau egun, informazio sistema horrek gehienez 150 megabyteko (Mo) fitxategiak har ditzake eta tokiko erakundeek hirigintza akta guztiak elektronikoki transmiti ditzakete.

Prozedura berri honi esker, 2022ko urtarrilaren 1ean 3500 biztanletik gorako herrientzat indarrean sartu den hirigintza eskaerak modu desmaterializatuan jaso eta aztertze beharmendua betetzen dugu.

Herri Biltzarrari proposatu dio, frantses estatuko ordezkariari elektronikoki transmititzen diren agirien esparrua hirigintza agirietara hedatzea, eta baimena ematea indarrean den hitzarmenari emendakina izenpetzeko.

Desmaterializazioaz, Aïçaguerre andereak ohartarazi du Herri Biltzarreko saioretarako deia emailaz eskuratzea eskatu zuela, baina oraindik paperez eskuratzen duela.

Auzapezak erantzun dio biltzarkide guztientzako tabletak erostea 2022ko hasierako aurrekontuan sartua dela.

Onartu diren eraikitze baimenen afitxatzeari dagokionez, Hiriart-Urruty andereak galdetu du ea afitxatze digitala ere egin daitekeen.

Zerbitzuetako Zuzendari Nagusiak ihardetsi dio panel digitalaren erostea 2022ko hasierako aurrekontuan sartua dela. Panel digitala kanpoan kokatua izanen da. Ondorioz, herritar guztiek kontsultatu ahal izango dute, eta afitxatzeari buruzko araudia beteko du.

Auzapezak bozkara eman du.

**Aho batez onartua.**

## **09 – APGL: Tokiko Kudeaketarako Agentzia Publikoa: herri arteko errepede, sare eta antolamendu zerbitzuaren esku hartzeentzako hitzarmena**

Magis jaunak oroitarazi du 2020ean herriak Tokiko Kudeaketarako Agentzia Publikoaren Herri arteko errepede, sare eta antolamendu zerbitzuan bazkidetza hartu zuela (SIVRA). Bazkidetza horren baitan, Makeako bidearen antolamendu xume baten egiteko aitzin-proiektuaren ikerketa bat egin da, ekintzaren eremua zehazteko. Honako hitzarmenak behin-betiko proiektuaren diseinatze lan denborak zehazten ditu besteak beste (behin betiko aitzin-proiektua, planoen egitea, lanetarako eskaera orrien egitea). Gainera, AGPL eta herriaren arteko lankidetzaren nondik norakoak zehazten ditu:

- behin betiko aitzin-proiektuaren diseinatzea: 11 lan egun-erdi,
- planoak eta eskaera orriak egitea: 14 la egun-erdi.

Egun erdi bakoitzeko 278 € kostatzen da, hots orotara 6 950 €.

Herri Biltzarrari proposatu dio Auzapezari baimena ematea hitzarmen horren izenpetzeko.

Auzapezak bozkara eman du.

**Aho batez onartua.**

## **10 – Langileria: enplegu baten sortzea**

Auzapezak jakitera eman du, hiriko garbitasun zerbitzuaren behar iraunkorrek kontuan hartzeko Herri Biltzarrari teknikari laguntzaile lan postu bat sortzea proposatzen diola, ez denbora osokoa, hots astean 28 orenekoa, 2022ko apirilaren 1etik goiti, oraingo lan taldea laguntzeko.

Zehaztu du 2008tik denboraldi kontratu bidez edo aktibitate emendatzearen aitzakiarekin behin eta berriz kontratatu den postu baten iraunkortzeko proposatzen duela.

Hiriart-Urruty andereak galdetu du zergatik ez denbora osokoa.

Auzapezak ihardetsi dio zerbitzu teknikoaren beharren arabera dela lan denbora.

Zerbitzu Teknikoetako Zuzendariak zehaztu du postuan den langileak orain 22 oren egiten dituela astean, eta bere eginkizuna dela herriko komunak mantenua. Bere lan denbora urte osokoa izanen da, eta gaur egun dituen eginkizunez gain, herri erdiko zikin ontzi publikoak hustea ere egingen du. Azken bi urteetan Kanbon izan den turista kopurua ikusirik, langile horrek asteburuetan ere lan egingen du, maiatzetik agorrila bukaerara, denboraldiko langileekin txandakaturik. Zehaztu du ere pertsona horrek ezintasuna pairatzen duela eta ondorioz lan sistema biziki zehatza eta mugatua behar duela.

Aiçaguerre andereak adierazi du turismo estazio sailkatuak diren herrietako baldintza-agiriak behartzen duela komunak asteburuetan garbitu behar direla denboraldi betean.

Zerbitzuetako Zuzendari Nagusiak ihardetsi dio festetako asteburuetan baizik ez dela egiten.

Hiriart-Urruty andereak galdetu du ea pertsona horrek pairatzen duen ezintasunagatik ematen ote zaion denbora ez osoko kontratua.

Auzapezak ezetz erantzun dio. Frogatzat hartu du bere kontratua 22 orenetik 28 orenera pasatuko dela.

Hirigoyen andereak gehitu du pertsona bat 28 oreneko kontratuarekin hartzen dugunean eta SMIC-aren oinarrian ordaintzen, automatikoki langile pobrea dela. Bidegabekoa iruditzen zaio, bereziki hain delikatua eta zaila den lan batentzat.

Zerbitzu Teknikoetako Zuzendariak ihardetsi dio lan denbora beharren arabera kalkulatu dutela.

Goytino jaunak gehitu du, pertsona horren egoera fisikoa dela-eta, soldataz gain laguntzak ukan behar dituela.

Zerbitzu Teknikoetako Zuzendariak zehaztu nahi izan du langile horrek lan bikaina egiten duela: eraginkorra eta autonomoa da. Baina lan egutegian egonkortasuna behar du.

Hiriart-Urruty andereak galdetu du ea herriak eskubidea duen ezintasuna duen pertsona bat asteburuetan lan arazteko.

Zerbitzu Teknikoetako Zuzendariak ihardetsi dio langileak gidabaimena baduela, eta ez duela hainbesteko ezintasunik.

Ikuspegi etiko batetik, Hiriart-Urruty anderea ez dago ados pertsona ezindu bati komunak garbiarazteko eta are gutiago asteburuetan.

Irastorza jaunak zehaztu du pertsona hori aipatzean "ezindu" bezala aipatzea gehiegizkoa dela. Pertsona horrek ez du elbarritasunik, ez du ezintasun intelektualik, baina bere lana biziki zehatza eta zedarritua izan behar da.

Beyrie andereak gehitu du denbora osoko postua eskaini behar zaiola, bere lanak bizi duina eman diezaion.

Auzapezak erantzun dio postua 22 ordutik 28 ordura pasatu dela.

Beyrie harritzen da Kanboko garbiketa zerbitzua «betea» dela entzutean. Entzun izan du gela publikoen garbiketarekin arazoak badirela, eta orain dena ongi omen da.

Auzapezak ez die zerbitzu teknikoei leporatuko beharrak behar bezala ez baloratu izana. Pertsona horrek 2008tik lanaldi prekarioak izan ditu, eta gaur egun lanpostua egonkortzea proposatzen dugu, urte osorako eta 28 orenez astean.

Goytino jaunaren iritziz, enplegu sortze horren alde baikorra azpimarratu behar da: pertsona horren gizarteratzeko balio du.

Hiriart-Urruty andereak ohartarazi du pertsona horrek ez duela elbarritu estatusa, eta ondorioz ez duela laguntzarik. 28 oreneko kontratua eskainiz, prekarietatea sortzen dugu.

Auzapezak ihardetsi dio, prekarietatean segitzea litzatekeela denboraldiko kontratuekin segitzea, 2008tik izan den bezala.

Auzapezak bozkara eman du.

### **Gehiengoz onartua.**

Hiriart-Urruty andereak kontra bozkatu du.

Beyrie anderea eta Boscq jauna abstenitu dira.

Hiriart-Urruty andereak bere bozka argudiatu nahi izan du. Herri Biltzarrak 190 000 €ko inbertsioa bozkatu duela erran du, bideo-babes kamerak ezartzeko, baina ez da gai 2008tik gurean enplegu duin baten sortzeko.

Auzapezak erantzun dio, Herriak orain arte ez zuen enplegua eskaintzen diola. Gehitu du Hiriart-Urruty andereak inbertsio puntual bat eta C kategoriako enplegu bat alderatzen dituela, eta alderaketa hori ez dela bidezkoa.

Hiriart-Urruty andereak azpimarratu du hautu politikoa dela.

## **11 – Langileria: zerbitzu teknikoan permanentzia erregimena**

Auzapezak biltzarkide guzietan solasgaiekin batera igorri zitzaizkien oharra irakurri du, non zerbitzu teknikoan permanentzia erregimena eta dagozkion aplikazio baldintzak finkatzen diren. Bertan zehazten dira esku hartze esparruak, eginkizun nagusiak, lansariak eta permanentzia denboran lan eginez gero konpentsaziozko atsedena.

Zehaztu du 2022ko otsailaren 26 Batzorde Teknikoa aho batez agertu zela gai honen alde.

Auzapezak biltzarkideei proposatu die zerbitzu teknikoan permanentzia erregimenaren antolaketaz deliberatzea.

Aiçaguerre andereak galdetu du ea erregularizazio bat den edo orain arte erabakirik ez ote den hartu.

Auzapezak ihardetsi dio ordura arte permanentzia orduak indemnizazio erregimenaren arabera ordainduak zirela. Orain, arauak bete behar dira. Zortzi langile identifikatu dira permanentzia horien egiteko.

Aiçaguerre andereak galdetu du ea langileei beren iritzia eskatu zaien permanentzia horien errekonpentsatzeko edo ordaintzeko.

Auzapezak erantzun dio maila horretan ez dela aldaketarik izan, hots langileek permanentzia garaian egiten dituzten esku hartze denborak lehen bezala errekonpentsatzeko dituztela.

Auzapezak bozkara eman du.

**Aho batez onartua.**

## **12 – 2021eko eskuratze eta esku uzteen bilana**

Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L.2241-1 artikulua arabera, Herri Biltzarrak iragan den urteko lur funtsen politikaren bilanaz deliberatu behar du.

### **1 – Aurrekontu nagusia**

#### **a) Eskuratzeak**

- 547 721,22 € « Nivaldia » izeneko jabegoarentzat, Ursuia etorbideko 5.ean eta Termetako arraupako 2.ean, katastroko AW 50, 51, 52, 53 eta 55 lur sailak, orotara 01ha 83a 96ca-ko azalera batekin (salmentaren izenpetzea 2021/08/21),
- Bordart etorbidean ZORIONKETA higiezin multzoarena den 32 m<sup>2</sup>ko katastroko AV281 lur saila, euro sinbolikoaren truke (salmentaren izenpetzea 2021/11/10),
- AIRIS AQUITAINE-ri txokolategiko karrikan, 135 m<sup>2</sup>ko, katastroko AY182 lur sailaren eskuratzea, euro sinbolikoaren truke (salmentaren izenpetzea 2021/12/21),

#### **b) Salmentak**

- 2021ean ez da funts salmentarik izan.

## **2 – Hilobi eta kolunbarioen aurrekontu erantsia**

- a) Betoizko 10 hilobitxoren erostea 1 725 € zergaz kanporentzat, 10 kontzesioren berreskuratzea zergaz kanpoko 2 060 €rentzat.
- b) 25 891,66 €ko salmentak zergaz kanpo:
  - 6 lekuko 5 hilobi: 14 500 € ZK ;
  - 4 lekuko hilobi 1: 2 704,17 € ZK;
  - 2 lekuko 4 hilobi: 7 050,00 € ZK;
  - 3 hilobitxo (hilobitxo 1 = 4 kutzako "hilobi" 1): 1 637,49 € ZK.

Auzapezak bozkara eman du.

**Aho batez onartua.**

## **13 – Aurrekontu nagusiko 2021eko kudeaketa kontuen bozkatzea**

Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorren arabera, Aizpuru andereak herri biltzarkideei oroitarazi die 2021eko kudeaketa kontuez erabaki behar dutela, zeinak urte bereko administrazio kontuen bozkarako jadanik helarazi baitzituen Kontulari Publikoak. Biltzarkideei zehaztu die kudeaketa kontu horiek osoki bat egiten dutela administrazio kontuetako elementuekin, eta hauek berantago bozkatu beharko dituztela.

Auzapezak bozkara eman du.

**Aho batez onartua.**

## **14 – Hilobi eta kolunbarioen aurrekontu nagusiko 2021eko kudeaketa kontuen bozkatzea**

Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorren arabera, Aizpuru andereak herri biltzarkideei oroitarazi die 2021eko kudeaketa kontuez erabaki behar dutela, zeinak urte bereko administrazio kontuen bozkarako jadanik helarazi baitzituen Kontulari Publikoak. Biltzarkideei zehaztu die kudeaketa kontu horiek osoki bat egiten dutela administrazio kontuetako elementuekin, eta hauek berantago bozkatu beharko dituztela.

Auzapezak bozkara eman du.

**Aho batez onartua.**

## 15 – Aurrekontu nagusiko 2021eko administrazio kontuen bozkatzea

Aizpuru andereak finantza zerbitzua eskertu du prestaketa lanak egin izanagatik, eta zehaztu du administrazio kontuen proiektua 2022ko otsailaren 15eko finantza batzordean aurkeztu zela.

Funtzionamendu sartzek 6 880 479,95 €koak dira, eta atal bereko gastuak 5 696 321,19 €koak dira. Ondorioz, 1 184 158,76 €ko etekina du atal honek.

Inbertsio sartzek 2 194 657,74 € dira eta atal bereko gastuak 2 424 656,40 €koak. Ondorioz 229 998,66 € galera du atal honek.

Emaitza orokorrak 954 160,10€ko etekina du.

Aizpuru andereak funtzionamendu kontuen irakurketari ekin dio, honako xehetasunekin:

<b>Funtzionamenduko sartzek .....</b>	<b>6 880 479,95 €</b>
Funtzionamenduko egikaritze saldoaren gibelatzea.....	200 000,00 €
Karga lausotzeak .....	24 193,40 €
Zerbitzuen sartzek .....	862 485,26 €
Zergak .....	3 906 117,21 €
Zuzkidurak, dirulaguntzak eta parte hartzeak .....	1 477 121,75 €
Kudeaketa arrunteko beste sartzek .....	311 870,28 €
Finantza etekinak .....	1 657,94 €
Ez ohiko sartzek .....	1 602,99 €
Sailen arteko ordena eragiketak .....	95 431,12 €

Aizpuru andereak funtzionamenduko gastuak irakurri ditu.

<b>Funtzionamendu gastuak .....</b>	<b>5 696 321,19 €</b>
Karga orokorrak .....	1 906 901,85 €
Langileria kargak eta antzekoak.....	2 629 099,57 €
Etekinen lausotzea.....	25 200,00 €
Kudeaketa arrunteko bestelakoak .....	728 302,90 €
Finantza kargak .....	17 455,30 €
Ez ohiko kargak.....	35 474,38 €
Sailen arteko ordena eragiketak .....	353 887,19 €

Aizpuru andereak inbertsio kontuen irakurketari ekin dio, honako xehetasunekin:

<b>Inbertsio sartzek .....</b>	<b>2 194 657,74 €</b>
Inbertsioen egikaritze saldoaren gibelatzea.....	824 566,39 €
Zuzkidurak, Orotariko Funtsak, Erreserbak.....	789 919,83 €
Inbertsiorako dirulaguntzak .....	192 892,69 €
Maileguak eta antzeko zorrak .....	1 180,00 €
Beste finantza ibilgetuak.....	1 219,59 €
Sailen arteko ordena eragiketak .....	353 887,19 €
Ondare ekintzak .....	30 992,05 €

<b>Inbertsio gastuak.....</b>	<b>2 424 656,40 €</b>
Inbertsioen egikaritze saldoaren gibelatzea .....	0 €
Zuzkidurak, Orotariko Funtsak, Erreserbak.....	82 549,79 €
Zorren itzultzea .....	232 065,06 €
Ibilgetu gorpuzgabeak.....	15 694,05 €
Ekipamendu dirulaguntza eskuratuak .....	41 692,03 €
Ibilgetu gorpuzdunak .....	970 093,33 €



Bidean diren ibilgetuak .....	956 138,97 €
Sailen arteko ordena eragiketak .....	95 431,12 €
Ondare ekintzak .....	30 992,05 €

**Aurrekontu nagusia:**

	Sartzeak	Gastuak	Orotara
Funtzionamendua	6 880 479,95 €	5 696 321,19 €	1 184 158,76 €
Inbertsioak	2 194 657,74 €	2 424 656,40 €	-229 998,66 €
<b>Orotara</b>	<b>9 075 137,69 €</b>	<b>8 120 977,59 €</b>	<b>954 160,10 €</b>

Hiriart-Urruty andereak galdetu du zertan den tenis estalien gaia.

Auzapezak ihardetsi dio DETR-arentzako dirulaguntza eskaera txostena berriz aurkeztu behar izan dela. Txostena bitan zatitu behar izan da: tenis zelai estaliak batetik eta club-house-aren eraberritzea bestetik. Gaiak beranta hartu du horregatik, zeren ezinezkoa baita lanen abiatzea dirulaguntzaren onarpena ukan gabe. Txotena 2022ko hasierako aurrekontuan sartuko da. Bestalde, zehaztu du Herriak Pirinio Atlantikoetako Departamenduaren eta Euskal Elkargoaren dirulaguntzak ukan dituela eta eskaera bat aurkeztu dela Akitania Berriko Eskualdean.

Proiektuaren alde teknikoari dagokionez, Zerbitzu Teknikoetako Zuzendariak jakinarazi du "pro" faseko enpresen kontsultatze eta DCE txostenei buruzko oharra egin direla, eta arkitektoak azken proiektua eman duela. Azken egiaztapenak egin, eta dena ongi bada, enpresen kontsulta deialdia hemendik aste batera has liteke. Zehaztu du ere deialdiaren txosten teknikoak bi lan fase dituela (tenis zelai estaliak eta club-house-a).

Aiçaguerre andereak ohartarazi du 2021eko aurreikuspen aurrekontuan bozkatu ziren lan andana ez direla eginak izan, eta hala gertatzen dela 2015etik,

Aurrekontuaren bozkan adierazi zuen bezala, Beyrie andereak ohartarazi du aurrekontuko sartzeak azpi-baloratuak izan zirela, eta baliabideak gutxietsiak. Bere taldeak erran zuen aurrekontua funtzionamenduan mugatua zela, eta gehiengoko taldearen borondatea zela sartzeak azpi-baloratzea gastuen mugatzeko. Administrazio kontua ikusirik, ohartarazi du bere taldeak dituen zalantzak eta galderak justifikatuak zirela. Duda badu aurkeztu diren agirien zintzotasunaz.

Funtzionamenduari dagokionez, Auzapezak ihardetsi du Aizpuru andereak argiki azaldu duela zer diferentzia zegoen 2020 eta 2021eko Administrazio kontuen artean. Herriak bere gastuak murriztu ez dituenaz gain, COVID garaian finantza publikoetan zerbait on egin bazitekeen, hori zen hain zuzen kontu publiko guztiek, Euskal Elkargoarenak barne, emaitza baikorrak ukatea. Ez dago murrizketarik ez eta zintzoa ez den gauzarik. COVID egoeraren ondorioa da nagusiki.

Inbertsioei dagokienez, Auzapezak oroitarazi du Kanbok borondatez nahi izan zuela M57 nomenklatura berrira pasatu 2022ko urtarrilaren 1etik goiti. Eredu berri horren arabera, herriak urte anitzeko plangintzak landu behar ditu, hots proiektu guztiak urte zenbaiteko plangintzetan sartu behar direla. Funtzionamendu gastuei dagokienez, Auzapezak ohartarazi du milioi bat eta lauhun eta hirurogeita hamar mila euroko mailegu bat pentsatua zela. Egia da herriak proiektuen gauzatze tasa %46ko duela, baina inbertsio guztiak autofinantzatu dira.

Bukatzeko, Auzapezak ohartarazi du garai horretan aurrekontu guztiek ustiapen etekinak izan dituztela, usaian ez bezala kargatuak izan diren diru sartzeak ere.

Aizpuru andereak gehitu du, aitzineko urtearekin alderatuz, herriari SRU legearen arabera diru itzulera izan duela.

2021eko aurrekontu nagusiko administrazio kontuari buruzko beste galderarik ezenez, eta legeak agintzen duen bezala, Auzapeza gelatik atera da eta saioko presidentek bozkara eman du.

### **Gehiengoz onartua.**

Kontra bozkatu dute: Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Alain Boscq, Lilian Hirigoyen.

Auzapeza gelara sartu da.

## **6 – Hilobi eta kolunbarioen aurrekontu erantsiko 2021eko administrazio kontuen bozkatzea**

Aizpuru andereak funtzionamendu atal bakarra aurkeztu du.

Funtzionamendu sartzeak 33 343,22 €koak dira, eta atal bereko gastuak 5 900,66€koak. Ondorioz, atalak 27 442,56 €ko etekina du.

### **Hilobi eta kolunbarioen aurrekontu erantsia**

	Sartzeak	Gastuak	Orotara
Funtzionamendua	33 343,22 €	5 900,66 €	27 442,56 €
<b>Orotara</b>	<b>33 343,22 €</b>	<b>5 900,66 €</b>	<b>27 442,56 €</b>

2021eko administrazio kontuari buruzko beste galderarik ezenez, eta legeak agintzen duen bezala, Auzapeza gelatik atera da eta saioko presidentek, Aizpuru andereak hilobi eta kolunbarioen aurrekontu erantsiko 2021eko administrazio kontua bozkara eman du.

### **Aho batez onartua.**

Auzapeza gelara sartu da.

## **17 – 2021eko emaitzen esleipena**

### **➤ Aurrekontu nagusia:**

Aizpuru andereak 2021eko aurrekontu nagusiko funtzionamendu ataleko 1 184 158,76€ko emaitza positiboa honela banatzea proposatu du: 1 000 000,00 € (1068 artikulua) inbertsio sartzetara eta 184 158,76 € funtzionamendu sartzetara, 2022ko hasierako aurrekontura.

Auzapezak bozkara eman du.

### **Gehiengoz onartua.**

Kontra bozkatu dute: Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Alain Boscq, Lilian Hirigoyen.

## ➤ **Hilobi eta kolunbarioen aurrekontu erantsia**

Aizpuru andereak proposatu du 2021eko hilobi eta kolunbarioen aurrekontu erantsiko 27 442,56€ko emaitza positiboa 2022ko hasierako aurrekontuko funtzionamendu sartzeetara pasatzea.

Auzapezak bozkara eman du.

**Aho batez onartua.**

## – **Auzapezaren erabakien komunikazioa.**

Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L.2122-22 eta L.2122-23 artikuluen arabera, eta 2020ko ekainaren 11ko Herri Biltzarraren erabakia ikusirik, honakoen berri eman da:

- Hilerriko kontzesioen emateko eta berriz hartzeko erabakiak, 2021eko azaroaren 21etik 2022ko otsailaren 12ra:
  - 30 urteko kontzesioen erostea (lurrean): 1
  - 30 urteko kontzesioen erostea (+ hilobia): 2
  - 30 urteko kontzesioen erostea (+ hilobitxoak): 3
  - 15 urterako kontzesio eraberritzea, lurrean: 2
  - 30 urterako kontzesio eraberritzea, lurrean: 1
- 2021eko abenduaren 7ko erabakia: Laranjategia eta zalditegiak berroneratzeko eta berregituratzeko lanen obra kudeantza deialdia Ondarearen arkitekto den Isabelle JOLY-ri esleitu zaio, zeina INCHAUSPE jaunak ordezkatzan duen PIEL tailerrarekin arituko dena, zergaz kanpoko 18 000 €ko zenbateko batentzat.
- 2021eko abenduaren 7ko erabakia: zerbitzu guneko bulegoen alokatzeko 2021eko salneurriak.
- 2021eko abenduaren 7ko erabakia: eremu publikoaren okupatzeko eta lekuen 2021eko salneurriak.
- 2021eko abenduaren 7ko erabakia: 2021eko Euskal Biskotxaren bestako erakusketariak ordaindu sarien itzultze partziala.
- 2021eko abenduaren 21eko erabakia: M57 kontularitza eredura pasatzearen baitan, ibilgetuak Herriaren aktibotik kentzea.
- 2022ko otsailaren 7ko erabakia: Frantziako estatuari dirulaguntza eskaera, DETR-aren baitan, suteentzako ur-poltsen ezartzeko, 17 200 €koa, hots 43 000 €ko inbertsioaren %40.
- 2022ko otsailaren 9ko erabakia: Frantziako estatuari dirulaguntza eskaera, DETR-aren baitan, Arnaga etxeko aitzinaldea eta pergolen berroneratzeko, 129 761,70 €koa, hots 324 404,25 €ko inbertsioaren %40.

- 2022ko otsailaren 9ko erabakia: Frantziako estatuari dirulaguntza eskaera, DETR-aren baitan, hondamendiak pairatzen dituzten jendeen hartu eta aterpetzeko apartamenduaren berroneratzeko, 9 100 €koa, hots 45 500 €ko inbertsioaren %20.
- 2022ko otsailaren 9ko erabakia: Frantziako estatuari dirulaguntza eskaera, DSIL-aren baitan, zuntz optikoaren ezartzeko, 33 390 €koa, hots 41 739 €ko inbertsioaren %80.
- 2022ko otsailaren 11ko erabakia: Frantziako estatuari dirulaguntza eskaera, DETR-aren baitan, teniseko club-house delakoaren berroneratzeko, 77 278,58 €koa, hots 220 795,93 €ko inbertsioaren %35.
- 2022ko otsailaren 11ko erabakia: Frantziako estatuari dirulaguntza eskaera, DSIL-aren baitan, Arnaga etxeko aitzinaldea eta pergolen berroneratzeko, 129 761,70 €koa, hots 324 404,25 €ko inbertsioaren %40.

## – Bestelako gaiak.

2022ko otsailaren 25 email bidez, Hirigoyen andereak eskuhartze eskaera egin du, Herri Biltzarkideei Euskal Elkargoko Emazte eta Gizonen arteko Berdintasun batzordeak hartu azken erabakien jakitera emateko, Hiriart-Urruty eta Hirigoyen anderea bera batzorde horretan Kanboko ordezkari direlarik.

- Hirigoyen andereak batzordeak hartu bi erabakiak aurkeztu ditu, martxoaren 8ko emakumeen eskubideen nazioarteko egunari loturik:
  - Aurtengo kanpaina honako leloarekin: «ERRESPETUZ!»,
  - Herriak laguntzeko xedea duen gida baten ekoiztea, non emazte eta gizonen arteko berdintasuna ahalik eta hobekien gauzatzeko ekintzak proposatzen diren.

Honela, hiru ekintza proposatzen dira:

- 1 – Herriak gizon eta emazteen berdintasunaren aldeko Europako gutunaren izenpetzea,
- 2 – Kanbon, emazte-gizon berdintasunaren proiektua eramanen duen hautetsi baten izendatzea,
- 3 – Herri batzorde baten ezartzea (ikus behar nola), hainbat ekimen bere gain har ditzan, Kanbo herria emazte eta gizonen arteko berdintasunaren bidean ezartzeko.

Auzapezak ihardetsi dio proposamen guztiak aztertuko dituela denak edo batzuk onartu aitzin.

- Hiriart-Urruty andereak Poulou jaunari galdetu dio zertan den "Bask'Elles" erakusketa proiektua.

Poulou jaunak erantzun dio «Femmes, de l'ombre à la lumière» erakusketa 2022ko apirilaren 1etik 24era programatua dela, Assantza kultur gunean. Hastapenean, Kanboko kirolari handia izan den Janine Salagoity andereari buruzkoa izan behar zen, baina azken finean Héléne Dufau izanen da argitan emanen dena. Poulou jaunak berak mintzaldia emanen du, non Dufau andereak idatzi liburu bat aurkeztuko duen. Orain ehun urte idatzi zuen liburuak feminismoa du aipagai, emazteen historiaz eta mitologiaz atondurik.

- 2022ko otsailaren 25eko email bidez, Aiçaguerre andereak galdetu du ToLFEP-ek Beaulieu, La Lorraine, Petit Franclet, lekuen eskuratu-eta, ea epe laburrean garbiketa ekintzarik eta bereziki departamendu errepede bazterreko zuhaitz eta zuhaixken mozteko lanik aurreikusia den.

Auzapezak ihardetsi dio berriki solastu dela ToLFEPekin gai horretaz. Lan handia egitekoa baita, adostu dute herriko zerbitzu teknikoek lanen balorapen bat eginen dutela, ikusteko herriak zer har dezakeen bere gain. Eta aldi berean, herriak kontratatu ohi dituen enpresen zerrenda emanen zaio ToLFEP-ari.

Aiçaguerre andereak Paskalekuko biribilgunearentzako izapideei buruz egin eskaerari dagokionez, Auzapezak zehaztu du Herria beha dagoela Departamenduak noiz jakinaraziko dion zer eremu behar duen ToLFEP-aren eskura emateko.

Bukatzeko, Auzapeza jakinean da herri aldizkaria Arrieta, Donapetria, Geltokiko bidean eta Makeako bidean ez dela banatua izan, eta luze gabe banatua izanen dela hitz eman du.

Auzapezak Herri Biltzarraren saioa 22:30ean hetsi du.